Minas
Instituto Educación Secundaria
Bigarren Hezkuntza Institutua

EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA SAILA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# Hauspoa tailerren deskripzioak

| Noiz | Tailerra | Deskripzioa |
| --- | --- | --- |
| Astelehena 15:00 - 16:00 | Zientzia tailerra | 3.DBH-ko ikasleei zuzenduta.<br><br>**Helburuak:**<br>- Ikasleen interesa eta motibazioa sustatzea<br>- Ikasleak zientziara hurbiltzea<br>- Talde lanean trebatzea<br>**Metodologia**<br>- Ikasleen interesetatik abiatuz, ikerketa desberdinak burutuko ditugu.<br>- Lan egiteko modu nagusia talde lana izango da.<br>- Laborategiko lanak eta landa lana (irteerak) lehenetsiko dira, Barakaldoko Parke Botanikora adibidez. |
| Astelehena 15:00 - 16:00 | Musika tailerra | **Helburuak:**<br>· Tentsio fisiko eta mentalak askatzea.<br>· Autoestimua hobetzea.<br>· Txanda errespetatzen ikastea.<br>· Arreta eta kontzentrazioa lantzea.<br>· Lotsa gainditzea.<br>· Taldean lan egiten ikastea.<br>· Materialaz arduratzen ikastea.<br>· Eta abar.<br>Gizaki guztiak MUSIKALAK garen heinean eta MUSIKA, LENGOAIA UNIBERTSALA dela aprobetxatuz, MUSIKOTERAPIAn erabiltzen diren TEKNIKA batzuen bitartez (adibidez musika tresna desberdinak joko ditugu elkarrekin) aipatutako helburuak lortzea da asmoa. |

| | | |
|---|---|---|
| Astelehena 15:00 - 16:00 | Eskulanak | Hainbat material erabiliko dira, hala nola kartoiak, artilea, material birziklatuak... produktu batzuk sortzeko: orri-markatzaileak, liburu antolatzaileak, loreak...<br>Helburuak:<br>- Ikasleen gaitasunak suspertzea<br>- Sormena garatzea.<br>- Ikasleen arteko harremanak hobetzea.<br>- Estresa kontrolatzen laguntzea.<br>- Konzentrazioa hobetzea. |
| Astelehena 15:00 - 16:00 | Historia eraikitzen | **Maketen bidez Artea eta Historia landuko dugu.(1-2 dbh)**<br>**Helburuak:**<br>- Historiari eta Arteari hurbiltze didaktikoa eta motibagarria eskainiko diegu.<br>- Talde-lana sustatuko dugu.<br>- Tailerraren bidez Euskeraren erabilera bultzatuko dugu. |
| Astelehena 16:00 - 17:00 | Bideojokuak sortu (Giltzarri) | Tailer honek ikasleei erakutsiko die PCrako lehen bideo-joko osoak sortzen, programazioari buruzko aurretiko ezagutzarik izan gabe.<br><br>**Helburuak:**<br><br>• Ikasleak esperientzia interaktiboen diseinuaren zenbait patroi ezagutzeko gai izatea bilatzen da.<br>• Ikasleak gai izango dira beren joko-prototipoak sortzeko<br>• Argitaratzeko eta banatzeko tresnei buruz ikasiko dute. Zeintzuk diren eta nola erabili.<br>• Bideojokoen diseinuari eta garapenari buruzko ikerketan lehen urratsa emango dute eta haien sormena sustatuko dute. |

| | | |
|---|---|---|
| Asteartea 15:00 - 16:00 | Ortua | "Barruko patioan" Kurtso osorako proiektua. Hasieran lekua garbitu, aukera ezberdinak ikusi, haziak erein,... Antolaketa, talde-lana eta elikadura orekatuaren garrantzia xedetzat hartuta.<br>Konpostajea, elikadura jasangarria, zentzumenak eta baratza, osasuna,... Euria denean klasean landu ditzakegun proposamen didaktiko batzuk. |
| Asteartea 16:00 - 17:00 | Antzerkia | Antzerkia da gaztetxoei eskain diezaiekegun jarduera osotu eta hezitzaileenetako bat. Arlo ugari jorratzen ditu: besteak beste, hizkuntza eta adierazpenaren hobekuntza, ikasbidea, gizarte-azturen sustapena eta lotsa galtzea. Ikaslearen prestakuntzaren osagarri ezin hobea bihurtu izatean datza antzerkiaren garrantzia, suspergarri berriak sortzeaz gainera, hitz egiteko, elkarrizketatzeko, komunikatzeko, adiskideak egiteko eta etengabe aldatuz doan mundu honetan moldatzeko gauza diren pertsonak presatzen dituelako. |
| Asteazkena 15:00 - 16:00 | Abesbatza | |
| Asteazkena 15:00 - 16:00 | Joku eta jolas tailerra | **Helburuak:**<br>● Joku eta jolasen artean dauden desberdintasunak ezagutzea.<br>● Joku eta jolasak taldeka prestatzea eta praktiketara eramatea.<br>● Joku eta jolas arauak ezagutzea.<br>● Arauak errespetatzea eta errespetua eragitea beste batzuei.<br>● Epailearen lana lantzea.<br>● Arauak, teknika eta joku estrategien erlazioa ezagutzea.<br>● Autokontrola garatzea. |

| | | |
|---|---|---|
| | | ● Taldeka eta bakarkako lan intensiboa egoera desberdinetan lantzea.<br>● Elkarlanaren garrantziaz jabetzea. |
| Asteazkena 16:00 - 17:00 | Puntuz puntu tailerra | Talde txikietan orratzak eta artilea erabiliz produkturen bat sortu (zorroak, bufandak...). Hasiera maila. Josi bitartean, euskara praktikatuko dugu, interesatzen zaizkien gaiei buruz mintzatuz, giro lasaian. |
| Ostirala 15:30 - 17:30 | Lur eta aireko akrobaziak<br><br>(Zirko)(Giltzarri) | Lurreko eta aireko akrobaziei buruzko ikastaroa, zirku-teknikak (oihala, trapezioa, malabarismoa eta zorua) ikasi edo horietan sakondu, bai eta entrenamendu fisikoa egin eta gorputzaren bidez sormena esploratu ere nahi duten neska mutilentzat. Gainera, luzamenduei, jarrera-heziketari, gorputzaren autoezagutzari eta orekari buruzko nozioak emango dira. Tailerra Zirkodomoan izango da (Arauti kalea 5), gaur egun dagoen zirku karpa egonkor bakarra. |